**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, Idiazabalgo kirol ekipamenduko area bat lurzoru hiritarrezinean (Arizkorreta baserri ondoko lurretan) sortzeko, plangintza arau subsidiarioen 3. zenbakiko elementu aldaketari dagokionez, Diputatuen Kontseiluak 1995eko apirilaren 4an hartutako erabakia jakinarazteko dena. 6507

IRAGARPENA, Arrasateko (Kontzepzioko zona) U.6.5. Unitateari dagokionez, arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientean Diputatuen Kontseiluak 1995eko maiatzaren 3an hartutako erabakia jakinarazteko dena. 6507

**TOLOSAKO UDALA**

IRAGARPENA, I.L.6 «Usabal-Hegoaldea-Erretiro» industri sektore berria delimitatzeko eta I.10 «Papelera-S.A.M.» area berkalifikatzeko (E.43 «S.A.M.» Area berria) arau subsidiarioen aldaketaren proiektuari hasierako onarpena eman zaiola jakinarazteko dena. 6508

**URNIETAKO UDALA**

IRAGARPENA, Urnietako planeamendurako arau subsidiarioetako HIA-22aren barne erreformarako plan berezia garatzeko urbanizazio proiektuari hasierako onespena eman zaiola jakinarazteko dena. 6509

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

ANUNCIO del Acuerdo de Consejo de Diputados de 4 de abril de 1995, relativo a la Modificación de Elementos n.º 3 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento para la creación en Suelo no Urbanizable de un Área de Equipamiento Deportivo en terrenos próximos al Caserío Arizkorreta, de Idiazábal. 6507

ANUNCIO del Acuerdo de Consejo de Diputados de 3 de mayo de 1995, relativo al expediente de Modificación Puntual de Elementos de las Normas Subsidiarias referentes a la Unidad U.6.5 (zona de la Concepción), de Arrasate. 6507

**AYUNTAMIENTO DE TOLOSA**

ANUNCIO relativo a aprobación inicial del Proyecto de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento para la definición de un nuevo sector industrial SI.6 «Usabal-Sur-Erretiro», y recalificación del área I.10 «Papelera-S.A.M.» (nuevo R.43 «S.A.M.»). 6508

**AYUNTAMIENTO DE URNIETA**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del Proyecto de Urbanización para el desarrollo del Plan Especial de Reforma Interior del AIU-22 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento. 6509

# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 2293

265/1994 DEKRETUA, maiatzaren 16koa, Euskal Autonomi Elkarteko zuhaitz batzuk zuhaitz apartekotzat jotzen dituena.

Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeak zuhaitz apartekoaren figura sortu du, tamaina, adin, historia, edertasun edo kokalekuari dagokionez ohi ez bezalako ezaugarriak dituzten zuhaitzak babesteko xedeaz.

Interesatuei entzun eta ukituriko gizarte zein erakunde interesen titularrei kontsulta egin ondoren, honako dekretu honen bidez zuhaitz apartekotzat jotzen diren kanpoko zein hemengo zuhaitzat daude aipaturiko egoera horretan. Euskal Herriko Natura Babesteko Aholku Kontseiluak (Naturazaintza), halaber, dekretu honen xedearen, hau da, zuhaitz batzuk zuhaitz apartekotzat jotzearen aldeko txostena egin du.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### 2293

DECRETO 265/1995, de 16 de mayo, por el que se declaran Árboles Singulares en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 16/1994 de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, establece la figura del Árbol Singular con el fin de proteger aquellos ejemplares de árboles de características extraordinarias que destaquen por razón de su tamaño, edad, historia, belleza o situación.

En dicha situación se encuentran los árboles, tanto autóctonos como foráneos, que son objeto de declaración como Árboles Singulares a través del presente Decreto, previo sometimiento a los trámites de audiencia a los interesados y de consulta a los titulares de intereses sociales e institucionales afectados. Igualmente la declaración de Árboles Singulares a que se refiere el presente Decreto ha sido informada favorablemente por el Consejo Asesor de la Naturaleza del País Vasco-Naturzaintza.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko maiatzaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondore, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Xedea.

Honako dekretu honen eraskineko zerrendan agertzen diren zuhaitzak jotzen dira Euskal Autonomi Elkarteko zuhaitz apartekotzat, Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 19. atalean aurrikusitakoarekin bat etorriz.

*2. atala.*– Kudeaketa.

Zuhaitz aparteko horietariko bakoitza kokaturik dagoeneko lurralde historikoko foru aldundiaren organo eskudunari dagokio zuhaitzaren kudeaketa.

*3. atala.*– Babes-araubidea.

Zuhaitz apartekoei aplikatuko zaien babes-araubidea honako hau da:

a) Debekatuta dago zuhaitzen produktuen edota zuhaitzen parteen zein zuhaitz osoen aprobetxamendua, helburu zientifikoekin haziak edo propaguluak biltzea ezik, beti ere kudeaketarako organo arduradunaren baimen administratiboa lortu ondoren.

b) Debekatuta dago zuhaitz hauek suntsitu, kaltetu edo markatzea, baita edozein motatako objektuentzako euskarri edo irozgarri gisa erabiltzea ere.

c) Basogintzako edo landare-osasunerako tratamenduak foru aldundiko kudeaketarako organo arduradunak burutuko ditu, kokalekuaren arabera dagokion foru aldundikoak hain zuzen ere, bai organo arduradunak berak, bai zuhaitz apartekoaren jabearekin lortutako akordioen bidez.

*4. atala.*– Inguruko babesaldea.

1.– Adaburuaren proiekzio-aldea eta bere inguruko 3 metroko lur-zerrenda hartuko dira zuhaitzaren inguruko babesaldetzat.

2.– Alde honi aplikatuko zaion babes-araubidea honako hau da:

a) Debekaturik dago inguruko babesaldean zuhaitz apartekoari, hala zuhaitzari berari nola lurzoruari, kalterik ekar diezaiokeen iharduera oro gauzatzea.

b) Debekatuta dago sua egitea.

*5. atala.*– Zortasunak.

Aipaturiko 16/1994 Legearen 24. atalean aurrikusitako prozedurarekin bat etorriz, zuhaitz apartekoak identifikatzeko seinaleak jarri, artatu eta erabiltzeko behar diren zortasunak ezarriko dira.

*6. atala.*– Kalteordainak.

Dekretu honen aplikazioaren ondorioz, legezko ondare zein interesik kendu edo bereziki mugatzen bada, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren araberako kalteordaina emango da.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su Sesión de 16 de mayo de 1995.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

Se declaran Árboles Singulares de la Comunidad Autónoma del País Vasco aquellos ejemplares de árboles que figuran en la relación anexa al presente Decreto de conformidad con lo previsto en el artículo 19 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

*Artículo 2.*– Gestión.

Corresponde la gestión de estos Árboles Singulares a los órganos competentes de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos en cuyo ámbito territorial se encuentren enclavados.

*Artículo 3.*– Régimen de protección.

A los Árboles Singulares les será aplicable el siguiente régimen de protección.

a) Se prohiben los aprovechamientos de sus productos y/o de sus partes o de su integridad, salvo la colecta con fines científicos de sus semillas o propágulos, con la debida autorización administrativa del órgano responsable de la gestión.

b) Queda prohibido destruirlos, dañarlos, marcarlos, así como, utilizarlos de apoyo o soporte físico de objetos de cualquier naturaleza.

c) Los tratamientos selvícolas y fitosanitarios necesarios para el mantenimiento del buen estado del árbol, se realizarán por órgano responsable de la gestión de la Diputación Foral correspondiente por razón de su ubicación, bien directamente o bien mediante acuerdos con el propietario del Árbol Singular.

*Artículo 4.*– Zona Periférica de Protección.

1.– Tendrá la consideración de Zona Periférica de Protección el área de proyección de su copa y una franja de terreno de 3 metros alrededor de ésta.

2.– El régimen de protección que se aplicará en esta zona es el siguiente:

a) Queda prohibida toda actividad en la Zona Periférica de Protección que pueda incidir negativamente en el Árbol Singular, tanto en el árbol como en el suelo.

b) Queda prohibido encender fuego.

*Artículo 5.*– Servidumbres.

De conformidad con el procedimiento previsto en el artículo 24 de la Ley 16/1994, se declararán las servidumbres que fueren necesarias para el establecimiento, conservación y utilización de señales de identificación de los Árboles Singulares.

*Artículo 6.*– Indemnizaciones.

La privación singular de la propiedad privada o de derechos e intereses patrimoniales legítimos que resulte de la aplicación del presente Decreto, será objeto de indemnización de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, dekretu hau bete eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.*– Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko maiatzak 16.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

ERASKINA

1. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus robur (haritz kanduduna).
LURRALDE HISTORIKOA: Araba.
UDALERRRIA: Zuya.
KOKALEKUA: Altubeko mendatetik hurbil dago, herri-onurako 734. basoan, «El Fresnal» izenaz ezagutzen den alderdian.
UTM: 30 T-WN-087.628
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta edertasuna.

2. Z. A.
ESPEZIEA: Fraxinus excelsior (lizar arrunta).
LURRALDE HISTORIKOA: Araba.
UDALERRRIA: Valle de Arana.
KOKALEKUA: Entziako partzuergoko Done Bikendi Haranan, herri-onurako 640. basoan, La Dehesa izenekoan, Santa Teodosiako baselizaren ondoan dago. Baselizaren ipar-mendebaldeko muturretik hurbilen dagoen zuhaitza aukeratu da.
UTM: 30 T-WN-526.351
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: neurriak.

3. Z. A.
ESPEZIEA: Pinus pinea (pinazi-pinua).
LURRALDE HISTORIKOA: Araba.
UDALERRRIA: Lantarón.
KOKALEKUA: Ebro ibaiaren ezkerreko urbazterrean dago, 122. eskualde-errepideko 38. km-an, lurzatiak banatzeko 19 eta 20. mugarrien artean.
UTM: 30 T-VN-994.306
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: espezie honetako berezko baso bakarra da Euskal Herrian.

4. Z. A.
ESPEZIEA: Sequoiadendron giganteum (sekuoia erraldoia).
LURRALDE HISTORIKOA: Araba.
UDALERRRIA: Vitoria-Gasteiz.
KOKALEKUA: Vitoria-Gasteizko Magdalena kaleko 12. zk.ko etxearen lorategian dago, ursulinen ikastetxearen ondoan.
UTM: 30 T-WN-264.439
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta edertasuna.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para que dicte las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de mayo de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

ANEXO

A.S. 1
ESPECIE: Quercus robur (Roble pedunculado).
TERRITORIO HISTÓRICO: Álava.
MUNICIPIO: Zuya.
SITUACIÓN: Cerca del puerto de Altube, en el Monte de Utilidad Pública n.º 734, en el término conocido como El Fresnal.
U.T.M.: 30 T-WN-087.628
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y belleza.

A.S.: 2
ESPECIE: Fraxinus excelsior (Fresno).
TERRITORIO HISTÓRICO: Álava.
MUNICIPIO: Valle de Arana
SITUACIÓN: Monte de utilidad pública n.º 640, la Dehesa, de San Vicente de Arana, junto a la ermita de Santa Teodosia, en la parzonería de Entzia. El ejemplar elegido es el más próximo al extremo noroeste de la ermita.
U.T.M: 30 T-WN-526.351
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Dimensión.

A.S. 3
ESPECIE: Pinus pinea (Pino piñonero).
TERRITORIO HISTÓRICO: Álava.
MUNICIPIO: Lantarón.
SITUACIÓN: En la ribera izquierda del río Ebro, a la altura del Km. 38 de la carretera comarcal 122, entre los mojones parcelarios 19 y 20.
U.T.M: 30 T-VN-994.306
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Representa la única población natural de esta especie en el País Vasco.

A.S. 4
ESPECIE: Sequoiadendron giganteum (Sequoia).
TERRITORIO HISTÓRICO: Álava.
MUNICIPIO: Vitoria-Gasteiz.
SITUACIÓN: En el jardín de la casa n.º 12 de la calle Magdalena de Vitoria-Gasteiz, junto al colegio de las Ursulinas.
U.T.M: 30 T-WN-264.439
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y belleza.

5. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus ilex ilex (artea).
LURRALDE HISTORIKOA: Araba.
UDALERRRIA: Artziniega.
KOKALEKUA: Nuestra Señora de la Encina-ko santutegiko lorategietan dago.
UTM: 30 T-VN-890.752
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta historia.

6. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus ilex ilex (artea).
LURRALDE HISTORIKOA: Bizkaia.
UDALERRRIA: Garay.
KOKALEKUA: Etxeita baserriaren lurretan dago, Santa Kataliñeko baselizaren parean.
UTM: 30 T-WN-306.833
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: simetria, edertasuna, hostailaren trinkotasuna eta hazkuntzaren ondoriozko morfologia berezia.

7. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus ilex ilex (artea).
LURRALDE HISTORIKOA: Bizkaia.
UDALERRRIA: Muxika.
KOKALEKUA: San Roman auzoa.
UTM: 30 T-WN-236.923
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina, edertasuna, hostailaren trinkotasuna eta hazkuntzaren ondoriozko morfologia berezia.

8. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus x andegavensis (Q. robur eta Q. pyrenaicaren hibridoa) (haritz kandudun eta ametz arruntaren arteko hibridoa).
LURRALDE HISTORIKOA: Bizkaia.
UDALERRRIA: Arcentales.
KOKALEKUA: San Migel auzoko «La Zarzuela» finkaren lurretan dago.
UTM: 30 T-VN-822.891
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta taxua.

9. Z. A.
ESPEZIEA: Taxus baccata (hagina).
LURRALDE HISTORIKOA: Bizkaia.
UDALERRRIA: Zeanuri.
KOKALEKUA: Arimekortako larre-tokiak.
UTM: 30 T-WN-192.657
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta edertasuna.

10. Z. A.
ESPEZIEA: Taxus baccata (hagina).
LURRALDE HISTORIKOA: Bizkaia.
UDALERRRIA: Zeanuri.
KOKALEKUA: Arimekortako larre-tokiak.
UTM: 30 T-WN-191.662
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta edertasuna.

11. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus ilex ilex (artea).
LURRALDE HISTORIKOA: Gipuzkoa.
UDALERRRIA: Aizarnazabal.
KOKALEKUA: Aspiazu baserritik hurbil dago, Bego-sastia izeneko lekuan.
UTM: 30 T-WN-612.907
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: neurri apartekoak eta tankera.

A.S. 5
ESPECIE:Quercus ilex ilex (Encina).
TERRITORIO HISTÓRICO: Álava.
MUNICIPIO: Artziniega.
SITUACIÓN: En los jardines del Santuario de Nuestra Señora de la Encina de Arceniega.
U.T.M: 30 T-VN-890.752
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y historia.

A.S. 6
ESPECIE:Quercus ilex ilex (Encina).
TERRITORIO HISTÓRICO: Bizkaia.
MUNICIPIO: Garay.
SITUACIÓN: En terrenos del caserío Etxeita, frente a la ermita de Santa Kataliñe.
U.T.M: 30 T-WN-306.833
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Simetría, belleza, densidad de follaje y morfología característica por el crecimiento.

A.S. 7
ESPECIE:Quercus ilex ilex (Encina).
TERRITORIO HISTÓRICO: Bizkaia.
MUNICIPIO: Muxika.
SITUACIÓN: Barrio de San Román.
U.T.M: 30 T-WN-236.923
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño, belleza, densidad de follaje y morfología característica por el crecimiento.

A.S. 8
ESPECIE:Quercus x andegavensis (híbrido de Q. robur y Q. pyrenaica) (Híbrido de roble pedunculado y marojo).
TERRITORIO HISTÓRICO: Bizkaia.
MUNICIPIO: Arcentales.
SITUACIÓN: Barrio de San Miguel, en la finca denominada La Zarzuela.
U.T.M: 30 T-VN-822.891
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y porte.

A.S. 9
ESPECIE:Taxus baccata (Tejo).
TERRITORIO HISTÓRICO: Bizkaia.
MUNICIPIO: Zeanuri.
SITUACIÓN: Pastizales de Arimekorta.
U.T.M: 30 T-WN-192.657
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y belleza.

A.S. 10
ESPECIE:Taxus baccata (Tejo).
TERRITORIO HISTÓRICO: Bizkaia.
MUNICIPIO: Zeanuri.
SITUACIÓN: Pastizales de Arimekorta.
U.T.M: 30 T-WN-191.662
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y belleza.

A.S. 11
ESPECIE:Quercus ilex ilex (Encina).
TERRITORIO HISTÓRICO: Gipuzkoa.
MUNICIPIO: Aizarnazabal.
SITUACIÓN: Cercano al caserío Aspiazu, un el sitio denominado Bego-sastia.
U.T.M: 30 T-WN-612.907
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Dimensiones extraordinarias y forma.

12. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus ilex ilex (artea).
LURRALDE HISTORIKOA: Gipuzkoa.
UDALERRRIA: Mutriku.
KOKALEKUA: Olatz auzoan dago, Abeletxe baserritik hurbil.
UTM: 30 T-WN-474.931
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta kokalekua.

13. Z. A.
ESPEZIEA: Quercus suber (artelatza).
LURRALDE HISTORIKOA: Gipuzkoa.
UDALERRRIA: Getaria.
KOKALEKUA: Garateko mendatean dago, Kajuategi baserrirako hegalean.
UTM: 30 T-WN-649.931
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: diametroa 1,5 m-koa du, Gipuzkoako handiena alegia.

14. Z. A.
ESPEZIEA: Pseudotsuga menziesii (Douglas izeia).
LURRALDE HISTORIKOA: Gipuzkoa.
UDALERRRIA: Albiztur.
KOKALEKUA: Bidausoro mendiaren ipar-ekialdeko hegalean dago, Tolosako udal mugartean.
UTM: 30 T-WN-711.747
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: 55 m-ko altuera eta 18 $m.^3$ erreal.

15. Z. A.
ESPEZIEA: Magnolia grandiflora (magnolia lorandia).
LURRALDE HISTORIKOA: Gipuzkoa.
UDALERRRIA: Bergara.
KOKALEKUA: Monzon jauregiaren lorategian dago.
UTM: 30 T-WN-477.742
EZAUGARRI AIPAGARRIAK: tamaina eta edertasuna.

A.S. 12
ESPECIE:Quercus ilex ilex (Encina).
TERRITORIO HISTÓRICO: Gipuzkoa.
MUNICIPIO: Mutriku.
SITUACIÓN: Barrio Olatz, cerca del caserío Abeletxe.
U.T.M: 30 T-WN-474.931
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y situación.

A.S. 13
ESPECIE:Quercus suber (Alcornoque).
TERRITORIO HISTÓRICO: Gipuzkoa.
MUNICIPIO: Getaria.
SITUACIÓN: Alto de Gárate, en la ladera hacia el C.º Kajuategi.
U.T.M: 30 T-WN-649.931
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Su diámetro es de 1,5 m., el mayor de Gipuzkoa.

A.S. 14
ESPECIE:Pseudotsuga menziesii (Abeto duglas).
TERRITORIO HISTÓRICO: Gipuzkoa.
MUNICIPIO: Albiztur.
SITUACIÓN: Ladera noreste del monte Bidausoro, término municipal de Tolosa.
U.T.M: 30 T-WN-711.747
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Vela de 55 m. de altura y 18 $m.^3$ a la real.

A.S. 15
ESPECIE:Magnolia grandiflora (Magnolio).
TERRITORIO HISTÓRICO: Gipuzkoa.
MUNICIPIO: Bergara.
SITUACIÓN: En el jardín del Palacio de Monzón.
U.T.M: 30 T-WN-477.742
CARACTERÍSTICAS DESTACABLES: Tamaño y belleza.

## ARRIGORRIAGAKO UDALA

**2294**

AKORDIOA, Elkartze Zibilen Udal Erregistroa sortzeko dena.

Arrigorriagako Udalak, 1995eko otsailaren 23an egindako ohiko bilkuran, hau erabaki zuen:

*Lehenengoa*.– Arrigorriagako Udaletxean Elkartze Zibilen Udal Erregistroa sortzea. Izaera administratiboa edukiko du eta Elkartze Zibilen Udal Erregistroaren Antolaketa eta Iharduerarako Arauen arabera arautuko da. Arau horiek akordio honen eraskin moduan argitaratzen dira.

*Bigarrena*.– Elkartze Zibilen Udal Erregistroa sortzeko eta Elkartze Zibilen Udal Erregistroaren Antolaketa eta Iharduerarako Arauak onartzeko Akordioa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Bizkaiko Aldizkari

## AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA

**2294**

ACUERDO sobre creación del Registro Municipal de Uniones Civiles.

El Ayuntamiento de Arrigorriaga, en sesión ordinaria celebrada por el Pleno de fecha 23 de febrero de 1995, acordó :

*Primero*.– Crear en el Ayuntamiento de Arrigorriaga, el Registro Municipal de Uniones Civiles, que tendrá un carácter administrativo, y se regirá por las Normas Reguladoras de la Organización y Funcionamiento del Registro Municipal de Uniones Civiles que se adjuntan como Anexo.

*Segundo*.– Publicar el acuerdo de creación del Registro Municipal de Uniones Civiles y Normas Reguladoras de la Organización y Funcionamiento del Registro Municipal de Uniones Civiles en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histó-